

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Herritarrei euskalduntzeagatik sortutako gastuetarako laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak

2020ko abenduaren 18ko 283/2020 Dekretuaren bidez, alkateak erabaki du herritarrei euskalduntzeagatik sortutako gastuetarako laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onestea. Honako hauek dira:

Herritarrei euskalduntzeagatik sortutako gastuetarako laguntzak emateko oinarri arautzaileak

1. Betekizun eta baldintza orokorrak

1.1 Udalak bekak emango dizkie Bastidan erroldatuta dauden eta euskalduntze prozesu batean sartuta dauden guztiei.

1.2. Bekak 2019-2020 ikasturtean (2020ko urrira arte) egindako ikastaroen arabera onartuko dira eta honela lagunduko dira diruz:

a) 2019ko urria eta 2020ko iraila bitartean eskatzaileak sei hilabetez baino gehiago langabezian egon badira edo ikasketa ofizialak egin badituzte, beka irakaskuntza gastuen ehuneko 95ekoa izango da gehienez (garraioa eta bestelako gasturik ez da lagunduko).

b) 2019ko urria eta 2020ko iraila bitartean eskatzaileak ez badira egon sei hilabetez baino gehiago ez langabezian ez ikasketa ofizialak egiten, beka irakaskuntza gastuen ehuneko 80koa izango da gehienez (garraioa eta bestelako gasturik ez da lagunduko).

Beka, gehienez ere, honako hau izango da:

1. Langabezian edo ikasketa ofizialak egiten dauden onuradunak: 400,00 euro.

2. Langabezian ez dauden eta ikasketa ofizialak egiten ez dauden onuradunak: 200,00 euro.

2. Onuradunen definizioa

Euskara ikasteko ematen diren beken onuradunek baldintzak hauek bete beharko dituzte:

– Bastidako udalerrian egotea erroldatuta.

– Euskara eskolen ehuneko 75era edo gehiagora joan izana egiaztatzea edo, hala badagokio, ikastaroa edo ikastaroak gainditu izana egiaztatzea, HABEK edo gainditze probak ofizialki egiaztatzen dituzten beste erakundeek emana.

3. Euskara ikasteko 2020an emango diren beken gehieneko zenbatekoa eta aurkeztu beharreko agiriak

3.1. 2020ko ekitaldirako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezingo da izan 3.000,00 euro baino handiagoa. Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz laguntzeko kopuruek guztira gainditzen badute dirulaguntza horiek emateko dagoen aurrekontu esleipena, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin haiek estali ahal izateko.

3.2 Eskaera eta agiriak Bastidako Udalaren Erregistro orokorrean, 7 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

3.3. Agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak:

- Eskaera orria, euskara ikasteko beka jasotzeko.
- Egindako ordainketaren frogagiria.
- Kasuan kasuko euskaltegiak egindako bertaratze ziurtagiria.
- Zinpeko aitorpena, jasotzen duena eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik
- NANaren fotokopia eta hirugarrenaren alta orria behar bezala beteta, beka lehenengo aldiz eskatzen bada, edo zenbatekoa beste kontu korrante batean sartzea eskatzen bada.

4. Laguntzak izapidetzea

Udalaren administrazio zerbitzuak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako beken eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio horiek onartzea, bidezkoa baldin bada.

Ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du. Administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera.

Bastida, 2020ko abenduaren 18a

Alkatea

LAURA PÉREZ BORINAGA